

Balenciaga *izaera*

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

B

ERAKUSKETA 2022/2023

BALENCIAGA IZAERA

CBM 2022.01

EISA, 1955

Koktelerako kapa-berokia, Tourseko gros beltzez egina, bizkarreko lepo zabalarekin



Aurten, 2022an, Cristóbal Balenciagaren heriotzaren 50. urtemuga oroitzen ari da Cristóbal Balenciaga Museoa, erakusketa baten bitartez haren obraren ikuspegi berri bat, aurrez jorratu gabea, esploratuz, eta «Balenciaga bat» ezaguterraz bihurtzen duen zera hori ardatz hartuta.

Cristóbal Balenciaga Eizaguirre (Getaria, 1895eko urtarrilaren 21a – Valentzia, 1972ko martxoaren 23a) xx. mendean eragin handienetakoa izan zuen moda-sortzailea izan zen; lanbideko kideek –Dior, Chanel edo Givenchy– goi-jantzigintzako «maisutzat» zeukaten.

Bost hamarkadako lan-ibilbidean, goi-jantzigintzako etxeak zuzendu zituen Espainian –Donostian (1917), Madrilan (1933) eta Bartzelonan (1935)– eta Frantzian –Paris (1937)–, eta bere izena dotoreziaren, abangoardiaren, edertasunaren eta denboraz kanpokotasunaren sinonimo bihurtu zuen.

Haren obran ugariak dira bolumen egingaitzak eta muturreraino landutako ehunak. Azpimarratzekoak dira botoi-zulo bakoitzaren xehetasuna, brodatu apartak, mahuka bakoitzaren perfekzioa, ahalik eta jostura gutxienekin egindako ebaketak.

«Museoa da munduan, modu iraunkorrean, Balenciagaren figura eta lana gorde, ikertu eta zabaltzen duen erakunde bakarra, ez 50. urteurren honetan soilik, baita sortu zenetik igarotako urteotan ere. Existitzea bera da omenaldirik onena, eta egunero egiten dugun lana, sortzaile handi honi ematen diogun ordain xumea», dio Miren Vivesek, zentroko zuzendariak.

Uste dugu erakusketa bakoitzean berritasunen bat eskaintzea dela gure egitekoa, eta, horregatik, aurten proposamen bat dakargu, Balenciaga modaren historian ezagutarazi duten zenbait silueta eta bolumen erakusteko ez ezik, ikusi ohi ez diren eta era berean haren obraren izaera osatzen duten beste alderdi batzuk ikusleei helarazteko ere», gaineratu du.

Hortaz, zenbait galdera sortzen dira erakusketaren ildotik: Zer da «Balenciaga bat»? Zerk egiten du berezi? Nola ezagutzen da? Zerk ematen dio izaera? Erraz ezagutzeko moduko kanpo-siluetatik, goi-mailako jantzigintzaren akabera finetara arte, erakusketak xehetasun ezkutuak jartzen dizkigu agerian; Balenciagaren lana xx. mendeko modaren erreferente eta sorkuntza garaikidearentzako inspirazio-iturri bihurtu duten xehetasun ezkutuak, alegia.

CBM 2000.132ab

1964

Gaueko konjunttoa; boli koloreko satinezko soinekoa eta jaka arrosa argia, girlanda brodatuekin eta Rébéren harribitxi aldedunekin

4/12



Erakusketaren xedea Cristóbal Balenciagaren obra beste ikuspuntu batetik azaltzea da, eta, aldi berean, Museoaren lana zabaltzea, jendeak hobeto uler ditzan bata zein bestea.

Hartara, erakusketaren estetikak gune garbi, neutro, minimalistak iradokitzen ditu, Museoaren bildumen artxibo- eta kontserbazio-eremuak gogora ekartzen dituztenak. Kromatismoak azal-kolorearen tonuak eransten dizkio aretoen zurtasunari, eta, horien bidez, ikusgai dauden jantzien izaera eta barnea azaltzen da; bestalde, erakusketaren diseinuak jantzien euskarria osatzen duten geruza eta egituren gainjartzeetara gerturatzen gaitu.

Komisario-lanetan Cristóbal Balenciaga Museoko Bildumen zuzendari Igor Uria duen erakusketa honek 90 ale jartzen dizkigu ikusgai, bost aretotan. Horietan, siluetak, bolumenak, ehunak eta brodatuak begiztatu daitezke, eta maiz ezkutuan den eta goi-mailako jantzigintzaren ebakiek, teknikak eta akaberek ahalbidetzen duten barne-mundu hori aurkitu.


Ibilbidearen hasieran barne-elementu bat aipatzen da: etiketa, museoaren bildumaren erreferentzia asko bereizten dituen, baina ez denak. Izendapen eta grafia desberdinekin, forma eta kolore desberdinetakoak, jantziaren leku bat baino gehiagotan josiak (bizkarra, lepoa, gerria, alboko jostura, etab.)... Etiketa da egilea ezagutzeko modurik argiena.



Balenciagak 1917an jarri zuen lehen negozioa, Donostian. Museoako bildumetako etiketarik zaharrena *EISA Costura* enpresari dagokio; 1927an sortu zuen negozio hori. Enpresa hori 1924tik *Cristóbal Balenciaga* izenarekin ziharduen enpresari batu zitzaion



1932. urtean, Balenciagak *B.E. Costura* enpresa sortu zuen; Madrilen ezarri zen 1933an, eta 1935ean negozioa ireki zuen Bartzelonan ere. Era berean, Donostian Etxe nagusiari eutsi zion. *EISA. B.E.* etiketa erabiltzen zuen orduan. 1942an, beste sozietate-aldaketa batek *EISA* enpresa sorrarazi zuen, eta, une horretatik aurrera, izendapen hori erabili zuen ekoizpen nazional guztia markatzeko bereizgarri gisa



BALENCIAGA.10, Avenue George V. Paris etiketak bereizten du enpresa berriaren ekoizpena, zeina Bizcarrondo eta d'Attainville bazkideekin batera sortu zuen 1937an. Parisko etiketak kontrol-zenbaki bat izaten du sarri. Izan ere, goi-mailako jantzigintzan, ohiko praktika da bildumak zenbakitu eta notario aurrean erregistratzea, egiletza babesteko legez kanpoko kopien aurrean

© Cristóbal Balenciaga Museos / Jon Cazenave

Hala ere, gerta daiteke jantzi batzuek sortzeko une beretik etiketarik ez edukitzea, edo beren bizitza erabilgarrietan zehar galdu izana. Horregatik, areto honetan galdera bat egiten da: zer-nolako egiaztapena egiten da Balenciagak egindakotzat jotzen den jantzi bat Museoaren bilduman sartzeko?

Bere enpresa-ibilbidean zehar, Cristóbal Balenciagak izen desberdinak erabili zituen etiketetan, izen komertzial eta grafia desberdinekin: *EISA Costura*, *Balenciaga EISA B.E.*, *EISA*, *BALENCIAGA.10*, *Avenue George V.*

Baimendutako kopiak modaren negozioaren parte ziren. Etxearen modelo oso bat erosi eta hortik abiatuta hirugarrenek jositako jantziak ziren. Horregatik, izen baimendua agertzen da etiketan, nahiz eta modelo originalari ere egiten zaion erreferentzia.

Era berean, hain zen handia Balenciagaren sorkuntzen eragina, hain bizia kalean jantzita eramateko desira, legez kanpoko kopiak ere ohikoak baitziren, eta, are, etiketak berak ere faltsutzen ziren.

Ondoren, aretoen antolakuntzak bat egiten du Balenciagaren ibilbidean nabarmentzen diren kanpoaldeko diseinuekin, eta hori ahalbidetzen duten barrualdeko tekniketako batzuk erakusten ditu.

Hala, bigarren aretoan 4oko hamarkadan Balenciagaren sorkuntzaren bereizgarri izan ziren gaueko silueta historizistak eta gerri estuko joskintza-lanak erakusten dira, eta aditzera ematen dira erosotasunari uko egin gabe horrelako bolumenak sortzeko erabilitako teknikak. Izan ere, Balenciagak uste zuen erosotasuna emakumeen dotoreziaren funtsezko osagaia dela.

CBM 2000.133ab
1949, EISA
Zeta beltzeko tafetaz egindako gaueko konjunttoa; soineko zuzena, aldakan izurria duena; eta boleroa smoking lepoarekin

Kutsu historizistako diseinuetan gerria nabarmentzeko, Balenciagak teknika bat baino gehiago erabiltzen zuen: matxarda kurboak, izurtuak eta korapiloak, kuxinak, bolanteak eta azpiko gonak. Horien bitartez, aldaken bolumen naturala harrotzen zuen, gerria estutu gabe eta mugimendua zaildu gabe




Erakusketako patroietan, 60ko hamarkadan Balenciagaren joskintzaren bereizgarri izan ziren eraikitze-minimalismoa eta inguratze-efektua ikus daitezke.

Hirugarren aretoan 50eko eta 60ko hamarkadetako joskintzari ematen zaio arreta. Nabarmenak dira berokien diseinu inguratzaileak eta jaken egokitze perfektua, barnealdean espazioa utzi eta besoen mugimendu harmoniatsua ahalbidetzen dutenak.

Forma horien sekretua maisutasunez egindako ebakia –aretoan dauden patroietan ikus daitekeena– eta jantziak orekatzen dituzten sorbaldakoen eta berunen barne-armatzea dira.

CBM 1998.112
 Circa 1962
 Kotoizko patroia, kutxa erako lepoarekin, kanezu biribilarekin eta mahuka japoniarrarekin

Kanezuak ezinbesteko funtzioa du eredu hauen konfigurazioan. Esate baterako, forma biribilari esker silueta garbia eratu eta besoen mugimendu harmoniatsua errazten duten patroien kasuan



CBM 2014.83
1963, BALENCIAGA
10, Avenue Georges V. Paris

Zetazko *cloqué* egindako
koktel-blusa honetan haren
barnealdearen zenbait
adibide ikus daitezke;
tolestura delikatuak eta
organtzaz forratutako
kontrapisuak, esate baterako



© Cristóbal Balenciaga Museum / Jon Cazenave

Laugarren aretoak emakumeentzako jantzien jostuntzari ematen dio arreta, batez ere. Haren ardatza 1955ean egindako tunikaren diseinua da; XX. mendeko modaren historiako mugari hura formen sinpletasunean oinarritzen zen, eta Balenciagak haren aldaera guztiak jorratu zituen. Tunikaren diseinua osatzen da garai berean haren ekoizpenaren bereizgarri zen blusa-erako bizkarren konjuntuen diseinu batekin.

Kokteletarako ehunen arintasun handiagoak aukera ematen du Balenciagak sortutako lanen funtsezko ezaugarri bat antzemateko, Parisko goi-jantzigintzan ohikoa: barneko akaberen fintasuna.

Balenciagaren sorkuntza-lanak asko zaindutako eta goi-jantzigintzaren estandarren arabeko akaberekin errematatuta daude, ia beti jantziaren forruaren azpian ezkutaturik.

Azken aretoan bilduta daude goi-jantzigintzaren maisuak hain berezkoak zituen bolumen dotoreak eta ehunen eta apaingarrien aberastasuna. Hala, agerian uzten da ingurutzailleen barne-aira, mugitzen ari den jantziaren barruan “flotatze” hori dakarrena. Honela deskribatu zuen Richard Martinek, New Yorkeko Metropolitan museoko moda-sailaren zuzendaria, 1973-99 bitartean:

Balenciagaren «amets ibiltariaren» ebokazioa da hark forma perfektuarekin zuen konpromisoaren lekukotza behin betikoa; forma perfektua, ez modelo, ideia edo figura estatikoen arabera egina, ezpada gorputzaren funtzioa aintzat hartuta guztiz eta soinekoaren mozketa bikainaren barruan flotatuz.

CBM 2021.27
1964, BALENCIAGA
10, Avenue Georges V. Paris
Gaueko soinekoa, zeta
beltzeko gazaz egina, uhalik
gabeko eskote eskegiarekin,
bizkarrean korapilo
batez eta dandar biribil
batez errematatuta

Sorkuntza-lan askotan,
ingurutzailcek aurrera egiten
dute, eta maximizatu egiten
dira, patro geometriko
sinpleetatik abiatuz.
Balenciagak kapsula bat
sortu zuen, barne-espazio
bat, mugitzeko erabateko
askatasuna duena eta
jantzia gorputzaren
formarekiko independente
bihurtzen duena



CBM 15.2013
Circa 1962, EISA
Artile zuriz egindako berokia, bola-formako botoi beltzekin,
kutxa erako lepoarekin, kanezu biribilarekin eta mahuka japoniarrarekin

11/12



Cristóbal Balenciaga Museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —3.500 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Idoia Unzurrunzaga



INFORMAZIOA

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

B

